

HAURREN AURREAN HELDUOK HELDU

Guraso, zaintzaile, lagun, senide eta bestelako hezitzaileen arteko euskarazko praktikak sustatzeko ekimena

Guraso, hezitzaile, lagun helduak, zaintzaile eta umeekin egoten diren bestelako senideek euren arteko -hau da, helduen arteko- hizkuntza-praktikak alda ditzaten eta euskara gehiago erabil dezaten aktibazio ekimena izango da. Herritar multzo hau batzen den eremuetan kokatuko da dinamika.

ARAU SOZIAL BERRIEN INTEGRAZIOA HELBURU

Euskaraldian sustatzen diren portaerak sozializatzen jarraitu eta herritarren praktiketan integratzea da ariketaren helburua, arau sozial bihur daitezten.

Umeen erreferente eta gertuko diren helduen arteko hizkuntza portaeretan eragitea eta euskararen erabilera areagotzea; eta horrekin, belaunaldi berriek hizkuntza praktika berriak normalizatu eta barneratzea.

“Euskaldunok euskaldunokin euskaraz egiten dugu” arau soziala indartu nahi du ariketak. Hiru dira arau horren oinarri nagusiak:

- 1. Solaskideek euskara dakiten kasuetan euskaraz egiten dugu (euskaldunak euskaldunari euskaraz).*
- 2. Lehen hitzak euskaraz egiten ditugu. Ezezagunekin zein euskaraz ulertzen duten ezagunekin.*
- 3. Kideak ulertu bai, baina euskaraz hitz egiten ez badigu euskarari eusten diogu, baita elkarrizketa elebidunetan ere.*

NOR

0 - 12 urte bitarteko umeekin harreman zuzena duten eta hizkuntza transmisioan zein eredugarritasunean eragina duten herritar helduak dira ariketako xede taldea.

NOIZ

Ariketa **azaroaren 22tik abenduaren 5era** bitartean izango da.

NON

Euskaltzaleen Topagunea Euskal Herri osoko batzordeekin jarri da harremanetan, eta denei egin die ekimena burutzeko proposamena. Hala egitea erabaki duten herrietan egingo da gehienbat ariketa.

Helduak eta umeak elkartzen diren **inguru informaletan egitea proposatuko dugu** (parkeak, eskola kanpoaldea, plazak, terrazak, etab.) Kaleko espazioez gain, **etxea ere izango da ariketa egiteko gune.**

EKIMENAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Aipatutakoez gain, honako ezaugarri orokorrak izango ditu ekimenak.

- Ahalduntze ariketa bat da.
- Asertibitatez eta enpatiaz egiten da ariketa.
- Helduen arteko ariketa da.
- Sinplea eta ulerterraza izatea bilatzen da.

Izango ez dituen ezaugarriak:

- x Euskaraldiaren marka eta terminologia (ariguneak, ahobizi-belarriprest, ...)
- x Herritarren izen-ematea.

NOLA?

Helduei ariketa egiteko honako urratsak egitea proposatuko diegu.

1. Pentsatu norekin alda ditzakezun hizkuntza ohiturak parkean, eskola inguruan edo umeekin egiten dituzun bestelako ekintzetan / eremuetan.
2. Kide horiei elkarrekin ariketa egitea proposatu.
3. Informatu zure ingurua ariketa egitera zoazela umeekin partekatzen dituzun espazioetan zaudenean.
4. Ariketa soziala egin.

ETA HAU GUZTIA, ZERGATIK?

1. Euskararen erabileran aurrerapausoak emateko nahia.

Indarberritu (edo biziberritu) nahi den hizkuntza belaunaldi gazteek erabiltzea da seinalerik onenetakoa, eta haiek euskara normaltasunez erabiltzea lortzeko helduok badugu zeregina eta zeresana.

2. Haurrei ematen zaien hizkuntza portaeraren ereduak haien euskararen erabilerari eragiten dio.

Haurrek hizkuntza ez ezik, hizkuntza erabiltzeko gizarte arauak ere barneratzen dituzte, ingurukoek beren artean egiten duten modutik ere ikasten du hizkuntza (norekin bai, norekin ez; noiz bai, noiz ez; non bai, non ez; zertarako bai, zertarako ez...)

3. Erabilera sozialaren eredurik ez badago, haurrek hizkuntza ikasi bai, baina ez dute jardungo (eredugarritasuna erabilera sustatzeko bidea)

Euskara egoera eta testuinguru guztietan ohikoa dela sumatu behar dute haur eta gaztetxoek. Haurrei eskatzen zaie euskaraz egiteko, baina gero helduek ez badute hala jokatzeko, gaztetxoei mezu kontraesankorrak bidaltzen ari gara.

4. Haurrak euskaraz hazi eta hezteak erantzukizun partekatua behar du izan.

Ikastetxeetan lan asko egin dute eta egiten ari dira, baina ikastetxeek gizartearen laguntza behar dute. Bestalde, hizkuntza portaerak etxean ez ezik, etxetik kanpo ere barneratzen dituzte, haren ondoan dauden helduen portaeretatik (hezitzaileak, lagunak, senideak, entrenatzaileak...).

5. Espazio berriak irabazi behar ditu euskarak, eta horretarako, helduen artean hausnarketa sustatu behar da.

Euskara gehien erabiltzen da haurrak eta helduak elkarrekin daudenean. Erabilera daturik baxuenak, berriz, nagusiak haurren presentziarik gabe ari direnean jasotzen dira (2016ko kale neurketa).

ORANGOZ PARTE HARTZEKO IZENA EMAN DUTEN HERRIAK

ARABA

- Bastida
- Gasteiz
- Gorbeialdeko Kuadrilla (Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia).
- Trebiñuko Barrendegia (Trebiñua eta Argantzun)

BIZKAIA

- Arrigorriaga
- Barakaldo
- Bermeo
- Berriz
- Durango
- Elorrio
- Enkarterri (Artzentales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Güeñes, Karrantza, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz eta Zalla).
- Erandio
- Etxebarri
- Gatika
- Gernika - Lumo
- Getxo
- Izurtza
- Larrabetzu
- Maruri-Jatabe
- Mungia
- Ondarroa
- Orozko
- Portugalete
- Sestao
- Ugao-Miraballes
- Zeberio

GIPUZKOA

- Arrasate
- Bergara
- Deba
- Donostia
- Eibar
- Elgoibar
- Eskoriatza
- Gabiria
- Hernani
- Irun
- Lazkao
- Legazpi
- Legorreta
- Oiartzun
- Oñati
- Ordizia
- Tolosaldea *
- Urretxu - Zumarraga
- Zegama
- Zumaia

NAFARROA

- Altsasu
- Araitz - Larraun
- Atarrabia
- Etxarri Aranatz
- Lakuntza
- Olazti
- Zangoza
- Zizur Nagusia

IPAR EUSKAL HERRIA

- Hainbat eragileren eskutik sektorialki antolatuko dute ekimena

* Eskualde moduan antolatuko dute ekimena, bertako hainbat herritan.

HITZORDUAK ETA KONTAKTUAK

- **PRENTSA AGERRALDIA.** Azaroak 9, 11:00etan, Koldo Mitxelena kulturgunean (Donostia).
- **SOLASALDIA.** Martin Ugalde Foroan. Azaroak 30, 19:00etan Martin Ugalde parkean (Andoain). Solasaldian parte hartuko dutenak:
 - ✓ Paula Casares. Soziolinguista
 - ✓ Kike Amonarriz. Soziolinguista eta Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria.
 - ✓ Iñaki Eizmendi. Ebeta
 - ✓ Moderatzailea: Garbiñe Ubeda. Kazetaria

KONTAKTUA:

Koordinazioa: Goiatz Urkijo - 688746991

Komunikazioa: Garbiñe Garagarza - 688746804 / Garazi Azkue - 688696853

INFO+

<https://topagunea.eus/haurren-aurrean-helduok-heldu/>

Sareetan: #HaurrenAurrean